

PuLunPe

167. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



Olerkia

Askatasuna. (La Llibertat)

Askatasuna da bizitzeko arrazoia,
esaten genuen ameslariok ikasle ginela.
Zaharren arrazoia da, haien arrazoi
eszeptiko bakarra, zehazten dugu orain.

Askatasuna da bidaia estrainio bat.
Zezen plazetako arearen gaineko
aulkiak dira hauteskunde garaian.
Egun argitan, metroko arriskua da,
egunkariak dira egunaren amaieran.

Askatasuna da txortan egitea parkeetan.
Askatasuna da egunsentia hasten denean
greba orokorreko egun batean.

Aske hiltzea da. Medikuntzako gerrak dira.
Errepublika eta Zibil hitzak dira.
Erbesterantz trenean alde egiten duen
errege bat.

Askatasuna da liburu denda bat.

Agiririk gabe joatea.

36ko gerrako kantikak dira.

Maitasun modu bat: askatasuna.



HILABETEKO PROTAGONISTA:

Peio Etxeberria, PILOTARI PROFESIONALA

Handia da Ultzama aldean pilotarekiko dagoen afizioa, eta asko pilota eskolan aritzen diren gazteak ere. Dena den, Aritz Begino izan zen Ultzamako azken pilotari profesionala, eta erretiratu zenetik ez da beste inor atera.



D.N

Duela hilabete batzuk Pulunpen argitaratu genuen Buruzgain pilota eskolan egiten duten lan ederra, eta fruituak ematen ari zela aipatzen ziguten bai presidenteak bai entrenatzaileak. Eta fruitu ederra eman du orain, Peio Etxeberria ultzamarrak Aspe enpresarekin kontratua sinatu baitu profesioaletan aritzeko. Uharteko pilota taldeak eta bereziki Paco Caballerok egingdako lana azpimarratu nahi izan du.

Berria jaso eta gutxira hitz egin dugu berarekin:

Nola jaso duzu berria?

Ilusio handiz jaso dut berria, denbora neramatzan enpresa profesioalekin entrenatzen, baina ez nuen uste profesioaletan aritzeko jauzia egingo nuenik. Baziren txutxu-mutxu zenbait, baina nik behintzat ez nuen espero.

Pilotari ultzamar bat berriz ere profesioaletan, zer sortzen dizu horrek?

Bailara honetan pilotari profesional bat egoteak ilusio handia egiten du, pilotarekiko afizio handia dagoelako. Eta modu honetan, kirol honi bultzada bat ematen laguntzen bada, ederra litzateke.

Nola definitzen zara pilotari gisa?

Aurrelari ausarta naizela esango nuke, errematea etengabe bilatzen duen horietakoa. Ezker eskua ongi ibiltzen dut, eta partidu guztietan den-dena ematen duen pilotari horietakoa naizela uste dut.

Nolako ibilbidea izan duzu?

Azkenaldian maila nahiko onean jokatzen ari nintzen, eta frontoian sentsazio onak edukitzen. Beraz, profesioaletara igarotzeko pausu hau denbora luzean egindako lan gogorraren saritzat hartzen dut.

Debuta noiz izango duzu?

Ez dakit ziur, abenduaren hasieran izanen da, lehenengo asteburuan.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO

ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Lur Gil eta Iosu Martinez.

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

Inprimategira 2017ko urriaren 6an bidalia.


Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra



Erakusketa

Urriak 3 - Azaroak 3

Juan Fernández CUICHÁN.



19:00

LARRAINTZAR

20

GAZTELERAZ ETA EUSKARAZ



DE IGUAL A IGUAL / LIBURU AURKEZPENA



De igual a igual. 8 historias del comedor solidario Paris 365 liburuan ibarropenaren eta bigarren aukeren istorioak kontatzen dira. Burua jaso eta bere bizitza bideratzea lortzen duen jendearena. Elkartasuna eta justizia sozialaren istorioak. Aurkezpenean, Pabli Inurzun egileari Pabli Lasak, Paris 365ren arduradunak, lagunduko dio eta fundazio honen lana azalduko digu.

19:00

LARRAINTZAR

27

GAZTELERAZ,



ANTZERKIA / TEATRO



"A la deriva" Juanma Caseroren drama da; hainbat egileren testuak nahasten ditu ikusarazteko beharturiko migrazioa bidaia bat dela, ezaguna, familia, hizkuntza, ohiturak, lurra eta beste uztera behartzen duena; zehaztu gabeko leku batera daraman bidaia, batzuetan leku horretara ere iritsi gabe. Gogoeta egitera eta beste alde batera begiratzeari uztera eramango gaituen tarte entretenigarria.

HILABETEKO ESALDIA:

JAVIER ESPARZA, UPN, 13 TV TELEBISTAN

Gobernura itzuliz gero paperezko bola bat eginen dut eta euskara sustatzeko politika "zakarrontzira botako" dut


IKASTAROAK

Bi ikastaro hauetan jendea behar da taldea osatzeko, animatzen zara?

IKUSI YOUTUBEN ORGIN EGINDAKO KONTZERTUA.



Ostegunetan
19:00-21:00
ALKOTZ



Astelehenetan
17:00-19:00
ALKOTZ

"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak..."

ZATZO DINAMIZAZIO BATZORDERA!

Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitetz!

Email bidez informazioa jasotzeko: kulturmugl@gmail.com"

LANDA EREMUKO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN EGITARAUUA PROGRAMA PARA EL DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES RURALES

8 OCT Mexicanas construyendo Soberanía Alimentaria
Domingo. **Cristina González.** CAM. Chiapas.
Aizarotz **BASABURUKO KULTUR ETXEAn.** Aitzarotz
18.00 **EkoPikoteo km0.** (Actividad en castellano)

URR 9 Emakume Baserritarrak eta Elikadura Burujabetza
Astelehena. **Maialen Chantre** (Mugarik Gabe Nafarroa) eta
Jauntsarats **Gotzone Sestorain** (Leitzeko eta Etxalde)
17.00 **Ohianzabal.** Jaunsarats (Euskaraz)

URR 8-27 ERAKUSKETA: «ELIKADURA BURUJABETZA»
(Mundubat. OHIANZABALean- JAUNTSARATS)



GOBERNANTZA LOKAL ETA ERALDATZAILEA: ELIKADURA BURUJABETZA ETA GENERO BERDINTASUNA



<http://www.mundubat.org/taq/gobernantza-alimentaria-navarra-2/>

Antolatzen
dute:



Ordaintzen du:



Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna
Día Internacional de las Mujeres Rurales

TALLER / TALLER
Preparados con plantas para el control de plagas y enfermedades en la huerta

URRIAK 23 OCTUBRE
18:00-21:00
Larraitxoarke bentan

DEBALDE / GRATUITO
Isena eman urriak 18rta /
Apuntarai: antes del 18 octubre

948305353
674 08 49 26


ECOFEMINISMO
Lanbidearen bidezkoak / Comercio de calidad

Ahalduntzea

ANTZERKIA

BI ERO DISKOTEKAN
MAITASUN/LTAUMOREZKO
KOMEDIAZATU BERDINETAN

Apeztegi berriko ganbaran
19:30etan
urriak 14, larunbata
eta ondoren afara. Eman szena Apeztegi berrin



**BIDALI ZURE
ALBISTEAK
AGAZKIAK
OLERKIAK
TXUTXUMUTXUAK**

PULUNPE@GMAIL.COM

Alkate **berriek** bi urte

Kurtso politiko berria hasi da uda amaitzearekin batera. Irailean hasi dira normaltasunez lan egiten udaletxeetan, eta horrek esan nahi du legegintzaldi honetako bigarren zatian sartzen garela, hirugarren urtean alegia.

Bi urte baino gehiago igaro dira udal eta foru hauteskundeetatik, 2015eko maiatzaren 25ean izan baitziren. Zenbait herritan bigarren itzuli batean erabaki behar izan zituzten ordezkariak, Lantz eta Anuen esaterako, eta hainbat kontzejutan ere bai.

Aldaketa ugari izan ziren hauteskunde horietan, ez bakarrik Nafarroako parlamentuan, baita gure eskualdean ere. Ultzamako aldaketa izan zen na-

barmenena, non EH Bilduk alkatetza hartu zuen. Bai Ultzaman eta bai Atetzen boto gutxiren aldea izan zen, eta bietan lortu zuen irabaztea EH Bilduk.

Oraingoan, gure eskualdeko mendebaldera jo dugu, bi urte hauetako balorazioak jasotzeko. Basaburua, Atetz, Zarrantz eta Erasoko alkateekin hitz egin dugu:



BASABURUA

ESTHER LAKASTA, Basaburuko alkateari galderak:

Zer nabarmenduko zenuke orain arte egindakoaz?

Parte-hartzeari dagokionez, lehenengo gauza batzordeak martxan jartzea izan da. 35 lagunek parte hartzen dute gaur egun batzorde guztietan, eta oraindik lan gehiago egin daiteke martxan ez daudenak

martxan jartzeko eta parte-hartzea gehiago zabalteko. Programari dagokionez, alokairu soziala bultzatzeko udaletxeko 2. solairua eraberritu eta bi etxebizitzak alokatu ditugu, 0-3 urte arteko zentroa eraiki dugu, eta legeztatze prozesua abian dago, gazteak Iruñera ikastera eramateko garraio zerbitzua martxan jarri da, eta gainontzeko bizilagunak garraiatzeko baimena lortu da, banda zabalerako azpiegiturak egin ditugu Aizarotz, Ihaben eta Gartzaronen. Haur, gazte, emakume eta helduen osasuna zaintzeko programa ezarri dugu, kiroldegia erabilera araudia egin da, Aizarozko ostatuko erabilera legeztatze obrak egin dira, Basaburuko Merkataritzaren Gida argitaratu da, udal buletina berri da...

Zer egin nahiko zenukete datozen 2 urteetan?

Esan bezala, parte-hartzea sustatzen jarraituko dugu, ahalik eta pertsona gehien udalaren proiektuen bultzatzaile eta parte izan gaitezen. Proiektuei dagokienez Industriegunearen birplanteaketa egin dugu eta datozen urteetan tramiteekin jarraitzea da gure asmoa.

Bestalde, Apeztegi berrin gazteendako ikasteko txoko bat eta adinduendako egoitza egokitzeko asmoa dugu eta bertan igogailua jarriko dugu.

ATETZ



Atezko alkate EZEKIEL MARTINEKIN ere hitz egin dugu, bereziki Atetzek dituen erronken inguruan. Gai ugariez hitz egin dugu.

-Tokiko mapa berria: duela hilabete batzuk proposamen bat atera zuen Nafarroako Gobernuak, eta bigarren proposamen bat aterako du hemendik gutxira. Hor, aurreikusi daiteke Lantz, Ultzama, Anue eta Odieta "Bailarak" eskualdean kokatzea, eta Basaburua eta Imotz "Ipar-mendebaldeko" eskualdean. Atetz non sartu zalantza izan dezake Gobernuak, eta Ezekiek aipatu digu seguruenik Imotz eta Bas-

aburuarekin batera "Ipar-mendebaldeko" bailara horretan sartuko dela. Faktore ugari hartu behar dira kontuan, baina Atetz Nafarroako zonifikazioko eremu euskaldunean sartu izanak baldintzatu dezake erabaki hori.

-Zuntz optikoa edo banda zabala: Nafarroako Gobernuak datozen urteotan bailara guztietara zuntz optikoa eramateko helburua zuen, eta Ultzamara gerturatzeko lanak eginak dituzte jada. Baina ematen du zailago dutela Atetzera eramatea, fisikoki ez omen da posible, eta antena bidez eraman beharko da etorkizun batean. Bitartean, orain duten internet zerbitzu mantsoarekin jarraitu beharko dute. Egua-rasko antenak Vodafone zerbitzua hartu eta bailara osoan zabaltzen du; 100MBeko potentzia beharko lukeena 15 edo 16MBetan geratzen da soilik.

-Garraio publikoa: Iruñera joateko garraio publikoa arazo izan da beti gure eskualdean, eta Atetzen are

gehiago, hain bailara txikia izanda, ez baitzaio garrantzirik eman. Baina, behar hori ikusten denez, Atezko Udalak garraio publikoa jarriko du etorkizun hurbil batean. Bi aukera ikusten ditu Ezekielek: "karta bidezko taxiak", hau da, jendearen beharren arabera; edo autobusa. Ezekielek dio autobusaren aukera borrokatuko duela.

-Bestelakoak: badira beste zenbait erronka eta arazo Atetzen, eta horiei irtenbidea ematea izanen da datozen bi urteetako helburua. Uraren gaia da horietako bat, Atetz ez baitago Ultzanueta Ur Mankomunitatean, eta irtenbide bat eman beharko dio orain arteko ur garraio sistemari.

Eta, azkenik, hirigintza plana aldatzeko beharra ere ikusten du Ezekielek, lursail eta etxebizitzak erakitzeke gutxieneko tamaina bat eskatzen duena. Biztanle guztiendako posible izan dadin, gutxieneko tamaina hori txikitzea da proposatzen duena.



ERASO:

MADALI CARPINTERO alkatea:

Eraso herri txikia izanda, batzarrean erabakitzen dira egin beharrekoak.

Azken bi urte hauetan, obra bat zaborrontziak tokiz aldatzeko eta bi konponketa egin ditugu.

Beste obra bat egiteko zain gaude baina Nafarroako Gobernuak laguntzak atera arte ezin da hasi.

Kasu honetan kale baten urak bideratzeko lana izango da.

Imozko udalarekin harremana estua dugu eta Imozko alkateak kontzejuetako ordezkariak konbokatzen gaitu beharrezkoa denean.

Udalarekin dagoen komunikazioa posta elektronikoaren bidez izaten da, eta Erasoko bizilagun gehienekin whatsappen bidez. Beraz teknologia berriak indarrez sartu dira.

Datozen bi urteetan elkartean komuna egin eta bestelako konponketekin jarraitzeko asmoa dugu.

Eta basoko komunalen ustiaketarekin hasi .



ZARRANTZ:

FLOREN GIL alkatea

Hauek dira orain arte egindakoak: "Auzokide askoren lanarekin, gauza ugari egitea lortu dugu. Aurrekontua diru iturri txikia izan arren, pixkanaka aurrera goaz."

Eta hauek egiteko helburu dituztenak: "Luzeneko eta Etxeberriko bordeetara ur kloratua eramatea. Herriko plaza berritzea. Errepidean aske dabilzan behorrak, behingoz desager daitezela."


Landa Eremuko Nazioarteko Emakumeon Eguna dela eta



Urriaren 15ean ospatzen dugun Landa Eremuko Nazioarteko Emakumeon Eguna da. Munduan eta gure eremuan ere, emakumeon eta gizonen aukerak ez dira parekatu. Gure inguruan begiratzen badugu emakume eta gizonen

ULTZAMA KASUA:

Gobernuak erantzuleen aurkako "lege ekimenak" iragarri ditu eta ikerketa batzordearen luzapena



Iraizozko planta polemikoaren inguruko albisteak udan gutxitu badira ere, ikasturte politikoarekin batera berriak itzulidira, eta bi ditugu azpimarratzeko. Alde batetik Nafarroako Gobernuak argitaratu eman zuen plantaren erantzule juridikoen aurka joango dela.

soldatak berdintsuak diren, zenbat ordu lan egiten duten batzuek eta besteek, norik zaintzen dituen menpekotasuna duten pertsonak, aisialdian ordu berdintsuak ditugun...

Nahiz eta landa-eremuan gelditu eta lan egiten duten emakumeek ziurtatzen duten herrien bizitza, ustiategi askotako biziraupena, kultura gorde eta zabaldu, onarpenik gabeko zaindarien-lanak, elikagaien kudeaketa... hori guztia ezkutatuta gelditzen da. Landako ingurunea ezin da ulertu emakumerik gabe, eta, hala ere, nekazaritzako sektorean titular gehien gehienak gizonezkoak dira, eta arlo ekonomiko guztietan ere, alde batera uzten du emakumeek egindako eginkizun handia, baita ekoizpen, ugalketa, gizarte, kultura eta ingurumen arloan ere.

Azpimarratu nahi dugu azken garai hauetan indartzen ari dela landa-eremuko garapenerako elikadura-subiranotasunaren garrantzia. Zentzu horretan, herriek nekazaritza, sozioekonomia eta elikadura politikak sortu behar dituzte, eta emakumeok proiektu guztietan aktiboki parte hartu beharko dugu, gure etorkizunerako nahi dugun herriak sortzeko, beste eredu batzuk jarraituz. Protagonistak izateko garaia da.

BASABURUKO BASANDEREOK

Helburua da jakitea ea plantaren eraikuntzan aurkitutako finantziario "irregularrean" erantzukizun penal edo juridikoak dauden. Nafarroako hedabideen bidez jakin ahal izan dugunez, Kontu Ganberako txostena ikertuz baliteke honako delituak aurkitzea: diru-laguntzetan iruzurra, dokumentuak faltsutzea, diru publikoa bidegaki erabiltzea, prebarikazioa eta iruzurra.

Parlamentuko ikerketa batzordeari begira jarrita, bi kontu: alde batetik beste bi hilabetez luzatu dute batzordearen bizia; hasiera batean irailaren 30ean bukatu behar bazuten ere, momentuz azaroaren 30a arte ikertuko dute;bestea, azken asteetan jakin izan da galdeketa egiteko pertsona zerrenda luzea aurkeztu dela. Informatzen jarraituko dugu.

Anueko festak Etsainen, baina **etulaindarrak** protagonista

Abuztuan izan ziren, urtero bezala Anueko festak. Urtez urte herri batetik bestera aldatzen dira festak, eta aurten Etsainen izan dira.

Alicia Arangurenek aipatu digunez, ostiralean hasi ziren festak, Trokolo taldearen antzerkiarekin herriko plazan. Inguru horretan jarraitzaile ugari dituela dio Aliciak, eta beraz, giro polita egon zen. Mus txapelketa ere egon zen goizean, eta jarraian txistor jate ederra.

Larunbatean mezarekin eman zioten hasiera egunari batzuek, b e s -


te batzuek gosari eder batekin, eta goizean artisauak egon ziren plazan, euren produktuak erakutsi eta salduz: ezitia, gazta, zurezko altzairu eta bestelakoak...

Urteroko herri kirol txapelketa ere izan zuten, aurtengoan hiru talderekin: Etsain, Olague eta Etulain. Eta irabazleak Etulaingo kirolariak! Etsaingoak izan ziren bigarren eta Olaguekoak hirugarren.

Bazkaltzeko elkartu ziren gero 160 bat lagun, giro ederrarekin eta Puro Relajo taldearen laguntzaz. Ondoren afalordura arte egon omen ziren dantza eta dantza. Batzuk lehenago eta beste batzuk beranduago erretiratu ziren, datorren urteko festetan pentsatuz, Egozkuen izanen direnak.



Kultura **albistek** Imoztik



Mugimendu interesgarriak izaten ari dira Imozko bailaran azkeneko hilabeteetan eta urrira begira beste bi albiste jaso ditugu: alde batetik Etxale-

kun liburutegi publikoa irekiko dutela eta bestetik Muskitzen erakusketa egongo dela urriaren 7 eta 8an.

Bailarako udaletzeko eraikinean kokatzen ari dira liburutegia eta aste hauetan martxan jarriko den proiektua dugu eskuartean. Liburuak ailegatzen hasi direla esan digute, materiala herri bilketa baten bidez eginez. Eraikineko erabilera anitzeko gela erabiliko da, beste ekimenez gain, liburutegia izateko. Oraindik zehatz-mehatz definitu gabe badago ere, badirudi modu autogestionatuan funtzionatuko duela: liburu hartu eta zerrenda batean izena eman egoera kontrolpean izateko. Zehazteke badago ere, esan digutenagatik, hasiera batean goizeko ordutegian funtzionatzea da asmoa.

Beste ekimen bat izango dute Muskitzen urriaren 21 eta 22an, larunbat eta igandean. Erakusketa aurkeztuko dute Itsasonean.

Behi pirenaikoaren 30. lehiaketa arrakastatsua Elizondon Ultzamako bi abeltzain, kategoria desberdinetan garaile



D.N

Irailaren 23an, igandearekin, Elizondon jendetza bildu zen Behi pirenaikoaren 30. lehiaketa-entekatez gozatzeko. Asteburu osoko plana zen, eta eguraldi ona lagun (30 gradu inguru) egunaz gozatu zuten.

Euskal Herri osoko abeltzainak bildu ziren, eta 26 ganadutegietako 210 azienda aurkeztu ziren lehiaketara. 15 Nafarroakoak, 6 Bizkaikoak eta 5 Gipuzkoakoak, eta beste 30 salgai jarri zituzten. Nafarrek sari gehien eraman zituzten. Osotara 14 lehenengo sari.

Abeltzain bakoitzak kategoria bakoitzera bi buru aurkezten ahal zituen eta lehiaketan parte hartzeko aziendak hamabi kategoriatan sailkatu ziren. Eskualdeko Gregorio Iraola, Arraitz-Orkingo Bentetakoak, 4-6 urtekoak umatuetan eraman zuen lehenengo saria eta Zenozko Marianela Vittorinik 12 urtetik goitikoak. Aipatu beharra dago behitegi hori Peio semeak eramaten duela. Adierazgarria iruditu zaigu Nafarroan saritutakoaren artean dagoen aniztasuna: Baztan, Luzaide, Azioz, Arraitz, Zudaire eta Lezaundik hurbildu baitziren.

Izarpe kanpina ekologikoa izanen da

Aurreko hilabetean Aroztegiko kanpin berriaren eraikuntzaren aurrerapausoak kontatu genizkizuen, eta nobedade gehiagorekin gatz orain. Turistei eta baita bizilagunei ere zerbitzu zenbait eman nahi izateaz gain, hauek modu ekologikoan izatea erabaki dute.

Turismo jasagarriaren aldeko hautua hartzen dute, inguru natural, kultural eta sozialarekin errespetua bermatzen duena. Horren adibide, hemen dituzue zenbait xehetasun:


Eremuaren bihurgune naturalak erres-

petatuko dituzte, inpakturik txikiena eragin nahian. Bideak Eltzaburuko harrobitik ateratako ofitazkoak izanen dira, bailaran bertan dauden pistak bezalaxe. Bestalde, eta energiaren erabilerari dagokionez, biomasa erabiliko dute, eta ostatuko tximiniak berogailuetara eramango du beroa. Eta azkenik, teilaturako Nafarroako basoetako izeiak erabiltzen ari dira.

Beraz, pausorik pauso, negu gorrian irekita ikusiko dugu Izarpe kanpina, otsailean hain zuzen ere.



Nafarroako fosen mapa berri du



Nafarroako Gobernuak gerra zibilean hil eta lurperatutakoen kokaguneen mapa berri du. Nafarroako Gobernu aldaketarekin 72 hobi komunetan jarduketak egin dira 2015 eta 2017 bitartean, horregatik mapa hori berritzeko beharra zegoen.

Zehazki, 22 fosa berri ageri dira bertan, beste 38 hilobietako informazio berriua, 21 hildako gehiagoren datua, eta 49 hildakoren hilobiratzearen leku zehatza gehitzea. Berreskuratutako gorpuen ADNak emandako informazioa ere gehitu dute, izen-abizenak jarriz hildakoei.

Gure eskualdean hauek dira mapan agertzen direnak:
Odietan: Burdinkurutzeta (2), Sagardikoa (4), Erroldarena borda (2), Buztintxuri (?) eta Erripako hilerria (18)

Atetzen: Eguarasko Mendikotxo (1)

Ultzaman: Orgi basoa (18)

Lantzen: Lanzko biberoa (20)

Anuen: Aritzukoa (1) Etulaingoa (3), Kamiope fosa Etsainen (3) eta Burutaingo Arletas zubikoa (6)

Guztira 72 pertsona dira Gerra Zibilean eta frankismoan gure eskualdean lurperatu zituztenak.

Korrikazaleendako mezua

Atzera begiratzuz gero, indarra. Ilusioa, bizipoza, herria ikusiko dituzu: hamarkadaz hamarkada, euskararen aldeko hauspoa bizirik mantendu nahi duen herria, alegia.

20. Korrika atzean utzita, AEK-k aurrera begiratzuz jarraitzen du. Orain, beste urte batez, euskaltegietako ikasurte berri bati ekiteko unea iritsi da, Korrikaren beste aldean dagoen errealitatea indartzeko sasoia. Beraz, Korrikazalea zaren heinean, gonbita egin nahi dizugu:

-Euskara hobetzeko asmoa baduzu, euskara praktikatze-ko beharra, mailaren bat egiaztatu nahi izanez gero... euskaltegira jo dezakezu, eskaintza zabala duzu eta.

-Laguntza ere eskatu nahi dizugu: zabaldu mezu hau lau haizeetara, Korrika maite duten pertsona guztiengana iristeko. Korrikatik haratago, aldarri ozen bat egin dezagun herri eta txoko guztietan, Batzuk gehiago izan gaituzen.

AEK



JASOTAKO GUTUNA



“Kixotenean” saritu dute



Kixote liburuaren 4. mendeurrena zela-eta, Mantxara bidaian abiatu zen Iñigo eta erreportaje sail bat ondu zuen, bidaia-kronikaren eta saiakeraren artean dagoen gogoeta-sorta. Liburua osatzeko orduan, hasierako erreportaje sorta berridatzi zuen, kapitulu berriren bat asmatu, eta atal berriak sortu, kapitulu guztiak aberas-teko.

Maite Mutuberriak ilustrazioak egin zituen eta epaimahaiak azpimarratu du “ilustratzailearen lana, sentiberatasunez eta sujerentziaz betea, testuaren paraleloan doan beste irakurketa bat” proposatzen duela. Sorkuntza “paregabetzat” jo zuen lana epaimahaiak.

Pare bat galdera egin diegu sari honi buruz.
Pozik al zaudete?

Oso pozik. Beti da polita egiten duzun lan bategatik aitortza jasotzea, eta, gainera, sari hau, Maite-rekin konpartitu ahal izatea ere polita iruditu zait. Gainera, aurkezpen eguna aspaldi pasatu ostean, aukera eman dio liburuari ere jendearen begien aurrean bigarren aldiz azaltzeko, eta hori ere oso ongi dago.

Zer suposatzen du sariak?

Irakurleen eta lankideen berotasuna transmititu dit niri, eta hori oso gauza garrantzitsua da. Sorkuntzarengandik gertu dabilen kazetaritza egitea oso gustuko dut nik, eta sariari esker jasotako berotasun horrek sentiarazten dit badagoela jende bat aukera hori eskertzen duena, eta, denok dakigun bezala, gehien-gehienetan bidaia kideak izaten dira bidaietan garrantzirik gehien izaten dutenak.

Imozko **infernua** ETB1ean



Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurutzagak Imozko bailara bisitatu dute oraingoan “Herri txiki, infernu handi” telebista saioan. Gogoratuko duzue duela hilabete batzuk Basaburuan egon zirela; bada, orain, ondoko bailarara etorri zaizkigu.

Grabatu ondoren, zuzeneko ekitaldia egin zuten Latasako pilotalekuan, eta behin dena grabatuta, azaroaren 5ean egingen dute telebista bidezko emanaldia, ohi den bezala, gauean.

Imozko herri guztietatik ibili ziren, gure biztanle saltseroenak elkarriketatuz. Besteak beste, Joxean Iturralde alkatea, Xabier Iturriotz “Zapa”, Julia Jaunarena, Cristina Tabar, Zarranzko biztanle ugari, Isabel Igeltz, Joakin Garbisu, Mertxe Alberdi, eta abar.

Barre ederrak egingen ditugu hauekin guztiekin.

Auzako ur marroia



Albistean agertzen den argazkia aurkitu genuen sare sozial batean. Iraileko azkeneko astean Auzan txorrotatik hartutako ustezko baso bat ur dugu irudian. Agerikoa denez, barruan dagoena ura dela badiote ere oso kolore iluna du...

Eta herri horretan bizi den zinegotziari galderak egin dion kontu hori dela eta hau da erantzun diguna:

“Ur berria ekarri zenean gertatzen hasi zen hori. Ultzarueta mankomunitate berri horren sorkuntzan dago arazoaren sorrera (duela urte pare bat). Lanzko iturri berri horretatik dator orain ura eta lehen baino presio handiagorekin dator. Hori dela eta, hodietan dagoen “zaborra” mugitzen du eta egoera hori konpontzea kostatzen ari da”. Txorrotatik ateratzen den ura ez dago lokatzaz zikindua, oxidoaz baizik.

Zinegotziak adierazi digu teknikariak konpontze lanetan ari direla: “Gauza pila bat egin dute baina oraindik lanean ari dira. Gure etxekoa, adibidez, konpondua dago; baina tira, herriaren erdialdean gaude guk eta urak gaintetik datozenez ba behekoetan zailtasun gehiago dituzte”.

Iritzia: “Presidente”

Asteotan bete dira ehun urte Violeta Parra jaio zela, kantautore eta artista plastiko txiletarra. 1950eko hamarkadan, bertako musika tradizionala berreskuratzeari ekin zion eta Hego Amerikan ez eze, European ere oihartzun handia izan zuten haren gitarra eta perkusioek.

1965ean kultura herrikoientzako karpa bat,

Miren Amuriza
BERRIA egunkarian

plaza bat, zabaldu zuen Txilen. Ordea, depresioak jota zebilen ordurako eta bere buruaz beste egin zuen handik laster. Badu kantu bat, Miren cómo sonríen, gure presidente kuttunein eskaini geniezakeena (hauta ditzala nork bereak). Eurentzat, bihotz-bihotzez:

«Hara, irribarretsu presidenteak, engainatu dituzte inuzenteak. Hara, hautagai batek sindikatuei,

Xenda bideak, gero eta lotuagoak

Irurtzun izango da erdigunea, baina 51 herri lotuko ditu bukatzean dagoen xenden proiektuak. Iraila hasieran agertu zen albistea, eta Imoztik pasatzen den sarearen handitzea suposatzen du. Azkeneko 12 urteetako lana izan da eta Irurtzongo Lan Babestuko zerbitzuek gauzatu dute proiektua.

Iturraskari du izena proiektu honek eta besteak beste, naturguneak, zubiak eta iturriak konpontzea du helburuetako bat. Naturbide guzti hauen lotzea udazken honetan bukatzea espero dute eta Araitz, Larraun, Imotz, Iza eta Sakana, lotuko dituzte.

Bukatzean dagoen xenden proiektuak Irurtzun izanen du erdigunea eta 51 herri lotuko ditu, horretarako Imoztik pasatzen den sarea handitu beharra dago. Azken 12 urte hauetako lana izan da, Irurtzongo lan babestuko zerbitzuek egina. Besteak beste, naturguneak, zubiak eta iturriak konpontzea helburu duen proiektu honek Iturraskari du izena. Udazken honetan espero dute bukatzea Araitz, Larraun, Imotz, Iza eta Sakanako bailarak lotuko dituzten narturbideak.

Bide horietako asko natur bideak, Donejakue bidea, errege abelbideak, suebakiak, gurdibideak eta xendak izan dira lehenago ere, eta, antolatzaileen esanetan, bere barnean zaintzea eta errespetatzea merezi duten historia, edertasuna eta kontakizunak gordetzen dituzte.

Horri buruzko informazioa ematen duten panelak paratu eta esku-orriak egin dira, eta asmoa dago web orri bat sortzeko ere. Proiektuaren hirugarren zutabe gisa, haurrendako eta helduendako txangoak antolatuko dira.

lurbira eskaintzeko egin die dei. Hara, ugaldutako hitz-emateak, nola bozkatu ondoren albo-kalteak. Hara, zelatariak non dauden adi, loreak jaurtitzeko ikasleari. Hara mugazain batek kamino ertzak, nola argitu dituen langileentzat.

Hara, nola beztitu den sarjentua, odolez tindatzeko pabimentua. Hara, beren kapela eta hipokresia, sakristian egingo dute

heresia. Hara, nola zuritu zuten maiatza, pobreaki utziaz gerizpe latza.

Hara, eskopeta jarri dute mahaian, pobreaki ogia lapurtu nahian. Hara, nola apaindu den funtzionarioa, orriz kanbartzeko kalendarioa. Hara, nola hasten diren idazkariak, atzetik irakurtzen egunkariak.

Hara, nola ahaztu zaien halere, ez direla hilezko rrak beraiek ere».

Zizak, bailararen garapenerako baliabidea

Irailaren 13 eta 14an Ultzamako Parke Mikologikoaren 10. urteurreneko jardunaldiak egin zituzten Larraintzarren. Helburua mikologia baliabide gisa ikusaraztea, eta horren aprobetxamenduaren aukerak aztertzea. Beraz, batetik, ziza eta onddoei merezi duten balioa aitortu nahi dituzte; bestetik, eztabaidatu nahi dute baliabidea zaintzeko, merkaturatzeko eta turismorako errentagarri izateko dauden aukerei buruz.



Larraintzarko Zentro Zibikoan izan ziren jardunaldietan horretaz guztiaz eztabaidatu egin zuten Nafarroako zein Gaztela, Pirinio Atlantiko, Andaluzia eta beste hainbat txokotako aditu eta alor honetako langileekin.

Amaiak, Javik eta Edurnek, beste batzuen laguntzarekin batera, ilusio handiz prestatu zituzten jardunaldi hauek, Parke Mikologikoaren 10. urteurrena ospatzeko, eta hitzaldietan haiek ere hainbat interbantzio egin zituzten. Behin bukatuta, hona hemen egiten duten balorazioa:

Gaur egun baliabide mikologikoa ez da baloratzen basoko beste produktu batzuek bezala, egurra adibidez. Hala ere, ingurumenaren alorrean berebiziko garrantzia du basoen garapenean jotzen duen ezinbesteko paperagatik; bestalde, aisialdirako, turismorako eta gastronomiarako erakargarria da eta, gainera, merkatuan eta zerbitzuetan balio ekonomikoa du

Baliabide honek landa garapenean lagungarria izaten ahal da, nahiz eta arautzea konplikatu izan egungo legediarekin sortzen diren zailtasunengatik (Nafarroaren kasuan legedia zaharkitua da), eta beharrezkoa da haren kudeaketa jasangarria ingurumenaren, gizartearen eta ekonomia-aren ikuspegietatik. Nafarroako basoen azaleraren



%60k PEFC nazioarteko ziurtagiria du, eta horrek aukera ezin hobeak sortzen ditu.

Baliabide honen merkaturatzean lan asko dago egiteko, erabiltzen dutenen artean prestakuntza eskasa baitago. Gainera, alderdi fiskalean, salerosketaren esparruan ez baitago ezer, eta, beraz, enpresa merkaturatzaileek ahal dutena egiten dute. Egoera aldatu ezean, zaila da trazabilitatea



erabat bermatuta egotea. Horrek gehiegizko eta kontrolik gabeko bilketa laguntzen du, baita espezieak ez ezagutzeagatik sortzen diren intoxikazioen arriskua ere.

Prestakuntza erronka handia da. Gaur egun, Estatuan ez dago mikologo profesionalaren titulu araturik, eta beharrezkoa da baliabidearen iraunkortasuna ziurtatzeko. Esparru horretan, Nafarroan, lan egiten ari da bi lanbide-gaitasun abian jartzeko. Aukera bat da lanbide heziketako graduetan basoko produktuen ikuspegi globalago bat sartzea.

Era berean nabarmendu behar da baliabidearen kudeaketan inplikaturik dauden eragile guztien artean indarrak batzeko beharra, haren jasagarritasunaren aldeko ekintza bateratuak lortzeko. Alde horretatik positibotzat jotzen da Nafarroan lantalde bat sortzea, ildo estrategikoak gartuko dituen eta administrazioaren aurrean baliozko solaskidea izanen dena. Gai interesgarri bat da gutxi barru abian jarri behar den Nafarroako Oihan-estrategia delakoan lantzeko, definizioaren esparruan eta ondoko garapenean.

HEMEN DITUZUE ERE, JARDUNALDIETAN EGONDAKO ADITUETAKO BATZUEK BOTATAKO ESALDIAK:

EVA GARCIA BALAGUER (NAFARROAKO GOBERNUA):

“Jardunaldi hauek Nafarroako baso estrategian txertatuko diren ondorioak ekarri behar dituzte.”
“Erregulazioan pausoak eman behar direla uste dugu, baina horrek balaztaren papera bete gabe.”



JUAN ANDRES ORIA RUEDA (VALLADOLIDEKO KATEDRADUNA):

“Herriak husteak basoendako ondorio txarrak ditu: zahartze eta ixtea. Basoetan esku hartzeak, ondo jangarrien kopurua handitu eta toxikoena txikitu egiten du.” “Onddo eta zizen produkzioarako azienda behar da basoetan, basoak argiagoak izan daitezen, ez horren itxiak.”

Luis Miguel Garcia Bona (Nafarroako Unibertsitate Publikoa):


“Nafarroa da estatuko ziza eta ondo produkzio handiena duen probintzia, eta Nafarroaren barnean Ultzama aldea da produktiboena, eta Kintoa da bigarrena.” “Azken urteotan ez dago ondo espezieen gutxitzerik, ondoak badaude, eta ugaltu egiten dira, baina ez dute fruktifikatzen.” “Onddozale gehiegi dago, eta mikologo gutxiegi.”



Eduarne Gerendiain (Garrapo):

“Mikologian intrusismo asko dago, geroz eta jende gehiago dago bisita gidatuak egiten prestakuntzarik izan gabe. Zizak egiaztatze beharrezkoa da prestakuntza izatea.”

Javi Gomez (Garrapo):


“Parke Mikologikoak bideragarritasun soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa izan behar du, eta basoarekiko, eskualdearekiko eta biztanleekiko turismo arduratsua bultzatu behar du. Horregatik, baimen bidezko erregulazioa beharrezkoa da.”





Itsaso: Makia zelakoan hil zuten Inazio

Orain bizpahiru urte Pulunpen bertan kontatu izan dugu nola Guardia Zibilek hil zituzten bizgizaki, Arraizko 14 urteko mutiko bat eta Olagueko kuartel aurrean Lantzen udak pasatzen zituen iruindar bat, biak makiak zirelakoan. 1944ko urriko kontuak dira hauek.



Registro Civil heriotza agiria.

Gaurkoan basaburuar baten heriotza kontatuko dugu, Ignacio Severo Biurrarena, Beramendiko semea. Eta soldaduek hil zuten, 1944ko urrian. Aspaldi kontatu zigun Itsasoko Azpikoetxeko Bautistak: makien denboran Burgin ari huen lantegian lanean eta egun batean esan zioteken joateko herrira ogi bila.

Bizikleta hartu eta bizikletan zihoala hil zuten tiro emanda, makia zelakoan dirudienez. Eta honako hau gehitu digu: “Ni eskolan nenbilen eta guardia zibilek etorri hituen Labetoko bordara, etxeokak deus ez zekitela, etxea miaztera ea zerbait harapatzen ote zuten mutila eta bere familia gaizki uzteko”.

Etxalekuko Zapatiñeneko Juaniko Erbitik ere, horrelatsuko kontua aipatu zigun orain bi urte: “Makiek Burgin harpatu zutela, ta hore gerran ibilie izaki boluntario eta horrengatik hil zutela; gerran ibilie boluntario ta, makik jakinki eta hil in zutela”. Bai, gezurrak zabaldu zituzten egia estaltzeko. Berrek hil eta beste eman errua. Ez zen gauza oso itxurosoa izan. Arraitzen ere modu berean ibili ziren.

Nor zen Inazio Biurrarena? Beramendin, Etxalekuko errota (1) jaio zen Inazio, Juliana Biurrarenaren seme bastarta. Ondoren, Juliana, Etxalekuko Azpikoetxean bizi

zen Juan Martin Urritzarekin ezkondu eta errota berean jarri ziren bizitzen, Inaziok 4 urte zituelarik. Juan Martinek eta Julianak beste hiru ume ere izan zituzten.

Inazio Ihabengo eskolara joaten zen eta umeak infernuko deabruak izaten baitira, hala kantatzen omen zioten:

*Ignacio
Palacio,
donde nacio?
En Pamplona.*

Hau ere Juanikok du aditzea eta gogoan gordea.

Ez dakigu kantu honen zergatia, Beramendin jaitakotzat baitago apuntatua bai elizako liburuetan eta bai Juzgadoetan ere. Eta Palacio izengoiti hori ere zergatik ez dakigu.

Gero, familia guztia 1930. urtean edo zerbait lehentxeago, Itsasoko Labetoko bordara joan zen bizitzera.

Esan dugu Espainiako anaiarteko gerra hartan frankistekin boluntario zerbitzatu zuela, baina hor utzi dugu hari bat zintzilik, heriotzarena, alegia.

Hau guztia jakin ondoren, Itsasoko Juantxineko Maria Josefa Salak zerbait gehiago jakinen ote duen aipatu digute eta bere etxera joan gara eta uste dugu bete-betean asmatu dugula. Honek se-



Batixte Auza, Itsasoko Azpikotxeko nagusia.
Inazio hil zenean 10 urte zituen.

guru kontaktzen digu nola izan zen:
“Hue zoaien obik eske illunarriin; obi biar hurrengo eguniako. Bazittun pionak e. Obik eske ben'zoaien ta soldadu kuadril betekin topo in. Eta esan men'tzion batek: Alto! Eta ia nor zen!
Eta Inaziok kontestatu men'tzion:

-*Uno como tú.*

Eta ordun tiroa't eman.

-Zuk nola jakin ziñuten?

“Gue itxea etorri zeen guardia zibillek, ia ezautzen giñun halako eta halako. Eta guk baietz, ezautzen giñula.

Eta esan ziuten: Pues si no van pronto a Pamplona al Hospital no le veran más.

Eta bordakoak e'tzen joan'e. E'tzeen agertu. Nai zioten asko harrei, Inazioi, asko nai zioten. Biño e'tzeen agertu.

Guekin zuten aixkidantzaz haundine Labetoko bordakoak”.

Josepak kontaktu bezala, Burgin larriki zauritua gertatu eta Iruñera eramane zuten eta Militarren Os-

pitalean egon zen, Santo Domingo karrikan. Eta urriaren 28an hil zen gaueko hamaika eta erdietan. Eta ehortzi, Iruñeko kanposantuan hilaren hogeita hamarrean.

Gurasoak ez zuten ikusi ahal izan Inazio, ez bizirik eta ez hilik, beldurra, beldurra etxetik mugitzeko ere, hala ziren garai haiek. Kulparik ez eta etxeko zokoan egon behar. Zenbat negar egin ote zuen Juliana amak!?

Inazio hil zela eta bere heriotzaren berri ematera Juzgadura Regino Unzue delako bat joan zen, Zapateria karrikako 56. numeroan bizi zena. Lanbidez zurgina dela dio. Bai, hala zen, jakin ahal izan dugunez, Funeraria Unzueko jabea zen.

Heriotzako agirian, izenak eta deitura jarri bai, baina Reginok dio ez dakiela nongoa zen eta ez non bizi zen ere. Ez eta ezkondua edo ezkongaiak denik ere; eta ezta zer langintza zuen ere. Deus ez zekien eta heriotzaren berri ematera Regino!

Gero medikuaren zertifikatuaren arabera odol isuri larri (*hemorragia aguda*) batekin hil zela dio Juzgaduak. Ez da aipatu ere egiten tiroz hila izan dela. A zer nolako lana juzgaduarena eta militarrena! Bazekiten ba dena, ongi baino hobeki, Lekunberriko guardia zibilak Itsason izanak baitziren. Hala ere, dena ilunpetan utzi zuten. Hala komeni batzuei!

Kanposantuko liburuak ere ikusi ditugu eta horietan bai, Iruñeko kanposantuko kapilauak jarri zuen zergatik hil zen: “herida arma fuego” eta non ehortzi edo lurperatu zuten ere bai: gerran, Francoren alde hildako soldaduak ehortzitako tokian (48. lerroan, 6. fosan) . Nongoa, non bizi zen eta gainerakoak kapilauak ezin jakin, baina zekiena eta inportanteena jarri zuen: “herida arma fuego” eta lurperatu tokia.

Maria Josefari galdetu diogu ea nolakoa zen 27 urteko mutila:

“Altoa zen, eta listoa! Arron listoa! Harrek bazun bizikleta't ongi prestatue! (Orduan bizikleta orain autoa izatea bezalatsu zen) Ta bere kontu aitzen zen lanian oianian”.

Beste batzuk ere esan izan digute handia eta segaila zela mutil dohakabe hau.

Zorigaitzoko akabera izan zuen Inazio gaixoak!

HIZTEGIA

MAKIAK: Frantziar Bigarren Mundu gerran alemanen kontra ibili ziren gerrillariak. Hauetako asko Espainiatik ihesi joandakoak ziren. Eta izen bera hartu zuten gero Francoren kontra ibili zirenak ere, 1944. urtean eta ondoren, Espainiako hainbat menditan.
ERRUA: kulpa

ANAIARTEKO GERRA: gerra civil.

EHORTZI: Lurperatu.

HERIOTZA AGIRIA: Certificado de defunción.

DEITURA: apellido.

LANGINTZA: profesión.

KAPILAUA: Capellán.



Hemen inportanteena maitatzea da

Maria Josefa orain berri amatxi egin du Fermin bere semeak. Eta jaiotzak sailerako fotografia bat behar nuen. Eta amatxiz galdetu eta horrela egin dugu elkarren ezagutza. Gero bisitaz joan natzaio Gaskuëra, elkarrizketa hau egitera. Egitekorik ez eta sukaldean, mau, mau, mau, jan eta jan.



Eta nor den Maria Josefa Olló Lizaso? Ba hitz gutxitan esanen dizut: Beratsaingo *Karakoetxean* jaio eta eskolan herrian bertan ibili zena. Euskaldun sartu eskolan eta euskara bertan erdi galdu zuena. Eta gero han eta hemen lanean ibili, batez ere ostalaritzan, eta ttikitari ikasi zuen euskara berreskuratu zuena.

Maria Josefa, ondoren, Gaskueko *Juankonera* ezkondu Doroteo Orriorekin eta geroztik, bertan bizi izan da.

Bihozbera, pentsatzen duena garbi azaltzea gustatzen zaiona, sintzeroa baina prudentea.

Euskalduna eta euskaltzalea izan dugu Maria Josefa, bere baitan eraman du euskara.

Bere etxean egon gara, hizketan eta euskarari buruz hainbat galdera egin dizkiot:

Non ikasi zenuen euskaraz?

Etxean, gurasoekin. Beti euskaraz egiten ziguten.

Senide guziek ikasi al zenuten?

Bai, nik gehiena, ni izan bainaiz zaharrena; eta eskolan hasi nintzenean, erdaraz mintzatzen hasiko nintzen seguru, lagun guziak erdaldunak baitziren, gero maistra erdalduna, apeza erdalduna... dena erdaraz.

Esan dugu sei urteak artio euskaraz, eta gero eskolan galtzen hasi zinela.

Galtzen? Zuk sei urteak artio ikasi baduzu, ikasitakoa hor dago, baina hitzik egiten ez baduzu, ba, bueno, hizketan hasten zarenean, oso zail egiten zaizu. Gero eta zailago.

Noiz hasi zinen errekuperatzen?

Orduan gure etxean estudiantzera joateko modurik ez zegoen eta neskame joan nintzen Iruñera; bi etxetan egon nintzen. Aspertu nintzen eta etxera itzuli. Urte berean, Mugiroko bentakoak etorri ziren behar zutela norbait udarako eta horrela hara joan nintzen Zigandako beste lagun batekin. Mugiron euskaraz asko aritzen ginen.

Mugiroko bentan euskarara itzuli zinen.

Bai, bai, baina hurrengo urtean Lekunberriko Gurea barrean egon nintzen, eta hara ere Gipuzkoako jende asko etortzen zen eta euskara hobetu nuen. Eta euskarazko kantuak ere bai.

Euskarazko kantuak ere bai?

Bai, nik han kantatzen ziren kanturik inoiz ere ez nituen aditu. Eta asko gustatzen zitzaizkidan. Bazen talde bat oso jatorra, eta ekarri zizkidaten paperean eskribituta kantuen letrak: *Aitorren hizkuntza zaharra, Hegoak ebaki...* Ordura artio nik inoiz aditu ga-

bekoak.

Asko gustatu zitzaizkizun.

Asko, asko. Baina kantu horiek kantatzen ditudanean, ez dut den-dena ulertzen, e!

Gero Donostian ari izan zinen lanean.

Bai, errestaurante batean aritu nintzen lanean.

Baina herriko kontuetara itzuliz, aipatu zenidan bazenutela ezagunen bat etxera etortzen zena, euskara...

Bai, etxera etortzen zenean, esaten zuen: "baina nora joan behar duzu euskararekin? Ikasi behar da ingelera... eta ez dakit zer"

Eta zu gelditzen zara desarmaturik: "Ez du deusestarako balio honek" eta gero ikusten duzu herrian besteek ere ez dakitela eta jartzen da rechazo bat bezala. Konpleju bat sartzen zaizu.

Orduan zuk sentitu zenuen konpleju hori ttikitan.

Bai hala da. Baina esan behar dut, ez aitari eta ez amari ez niela inoiz aditu: honek ez du deusetarako balio eta horrelako konturik.

PULUNPE leitzen duzu?

Baaa! Klaro!

Hortaz, zerbait leitzen duzu.

Bai, bai. Ematen diot buelta den-denai. Baina batzuetan, hasten naiz entrebista bat leitzen eta ententitzen dut galdera, baina ez dut ententitzen erantzuna. Eta azkenean erraten dut, ba, ba, ba. Eta utzi egiten dut.

Hitzak falta, fraseak zail ...zer ez duzu ententitzen?

Dena, dena, frase osoa.

Eta frase luzeak eta, zailak egiten zaizkizu?

Jakina, jakina.

Zer eginen zenuke zu bezalakoendako, euskaraz leitzeko zailtasunak dituztenendako, euskaraz ikasten ari direnendako eta?

Nik jarriko nuke erdia edo zerbait gutxiago erdaraz. Zergatik denok endentitzen dugu erdaraz, baina horregatik ez dugu euskarazkoa leitu gabe utziko;

neri gustatzen zait leitzea, baina ez bazara enteratzen...zer egin behar dut? Aspertu eta utzi.

Beste zerbait eginen zenuke, jendea euskaraz leitzea eta, animatzeko? Fotografiak, hitzen esanahia jarri...

Ez, niretzat inportanteena da ententitzea, eta beste askori ere aditu diot gauza bera. Eta beharbada, fotografiak begiratuko dituzte, baina beste deus ez.

Honi bukaera bat eman behar zaio.

Zuek edo Pulunpe egiten dutenek, daukazue markaturik: ez, ez, dena euskaraz, ez da sartu behar deus erdaraz... Nik uste dut dela neurri bat gogorra, oso zaila. Zergatik ez ditugu egiten biak?

Nik uste dudana: umeak joaten dira eskolara, horiek dena euskaraz ematen dute. Etortzen dira etxera eta plazan, denak erdaraz. Zergatik? Zergatik errazago zaien. Horrek ez du esan nahi, euskara hor bazterrean utzi nahi dugunik, gutxienez nik ez. Maioriak nahi du salbatu, baina kontserbatzeko manera ez da horrela. Nik uste ez den horrela, bortxaz eman behar dugu...

Jendeari entzun behar zaio, galde dezatela etxeetan PULUNPEKOEK, galde dezatela...

Hemen bi edo hiru ideia arrapaladan bota dizkigu Maria Josefak. Ez dugu deus ukituko, bota bezala jarri ditugu.

Sumatzen zaitut zuren sentipenetan duzula behartu egiten dugula edo.

Bai, bai, badirudi inposizio bat eta inori ez zaigu gustatzen behartu gaitzaten. Maitatu, zabaldu, hitz egin bai, baina...

Zuk azkar maite duzu euskara.

Bai, bai. Gure hurrek joan ziren A eredura, erdaraz zen baina... Euskal Telebista asko ikusi zuten eta oso ongi defenditzen dira euskaraz. Orain gure semeak bere haurrari euskaraz egiten dio!

Hemen inportanteena maitatzea da, zinez, jakina, eta mantentuko duzu euskara.

Beste kontu batzuk ere ibili ditugu; eta Maria Josefak PULUNPE egiten dugunondako botatako hau ez zait berehalakoan atzenduko:

Zeinen zail jartzen diguzuen!

HIZTEGIA

SINTZERO: egiazalea

PRUDENTE: zentzuduna, zuhurra (Gure alderdian zuhurra hitzak beste esanahi bat ere badu, jakina, avaro edo tacaño)

ERREKUPERATU: Berreskuratu

ESKRIBITU: Idatzi

HEGOA: Hegala

RECHAZO: gutxiespena, arbuioa.

KONPLEJU: errudun-komplexua

Basaburuko Gida **kaleratu** dute

Epe luzeko estrategia baten pausu berria dugu hau



Pausuz pausu joan dira eta lehenengo erabakia Basaburuko “marka” eratzea izan zen. Horrek halako logo edo label bat ateratzea posiblea egin zuen; gurean ditugun leku, produktu, istorio, kultura eta ekonomia laguntzeko. Bidehonetan ere veste ordenantza bat egin behar izan zuten. “Negozio batzuek errepidean haien ikurrak jarri zituzten eta hori nolabait ordenatu dugu ordenantzarekin. Berez errepide-ikurrak herri-guneetan bakarrik jarri ahal dira, errepideak Trafikok kudeatzen baititu; halere, Nafar Gobernuarekin negoziatu behar dugu ea nola kudeatu kontu hau”, komentatu digu Xabier Azpirotz zinegotziak.

Plangintza honen hurrengo pausua Basaburuko Komertzio Gida argitaratzea izan zen, bailaran aktibitate ekonomikoak egiten dituzten enpresa guztien bilduma. Hilabete luzeren lana izan da eta duela aste gutxi liburuxka Basaburuan dago jada. Azpirotzen esanetan, “ongi atera da, banatu dugu, jendearen harrera nahiko ona izan da, eta kritikaonak jaso ditugu”. Lan luzea, aipatu bezala, batzordearen eta eskualdeko komunikazio langile batzuen artean egin duguna. “Ez da erraza izan bata eta bestearen atzetik egon behar izan garelako; baina, tira, azkenean bukatu dugu”, esan digute langileek. Osotara 700 ale argitaratu dira. Horietatik 450 herriz herri banatu dira, eta beste kopuru bat parte hartu dutenen enpresei eman zaie. Asmoa da etorkizunean, behar izanez gero, berriro argitaratzea eta ziurrenik sarean jarri ere.

Artikulu hau egiterako orduan egindako prozesuan “identitatea” hitza aipatu digute behin eta berriro. Identitatea barnera eta kanpora begira, edo bestela esanda, guk nola ikusten dugun geure burua eta nola ikusten gaituzten besteek. Argi dugunean zer garen, errazago izango dabesteek guk nahi dugun moduan gu ikusteak. Hainbeste bira eman gabe, Basaburuko Garapen Batzordean halako planteamenduekin lanean daramate denbora luzez eta argi dute nora doazen.

KAÑO ETXEA

ARRARATS

Landetxe ekologikoa
Gosariak eta afariak
Tailerrak eta coaching

Casa rural ecológica
Desayunos y cenas
Talleres y coaching

Kaño etxea
Arrarats
948396080 – 685707277
(Alberta Clara - Francisco Javier)
info@kaanoetxea.com
www.kaanoetxea.com
www.casaruralecologica.com
Facebook
Urte osoan irekita /
Abierto todo el año



Kaño

Kaño etxea turismo arduratsuko landetxea da, irla energetikoa, energia berriztagarriekin funtzionatzen duena. Bioklimatika, bioeraikuntza, geobiologia eta Feng-Shui irizpideekin diseinaturik eta zaharberriturik. Irizpide horien inguruko tailerrak eskaintzen dituzte, baita elikadura, energia eta kromozainketa ere. 5 logela ditu eta etxeko janaria eskaintzen dute.

Una Casa Rural de Turismo Responsable, totalmente autosuficiente con energías renovables. Diseñada y rehabilitada con criterios de bioclimática, bioconstrucción, geobiología y FENG-SHUI. Ofrecen talleres sobre los criterios citados y coaching de nutrición, energía y cromosonación. Tiene 5 habitaciones para alojamientos y ofrece desayunos y cenas.

13

Azalaren eta orrialde batean adibideak irudietan.

Hurrengo pausak

Kanpaina honen etorkizuna bideratua dago. Momentuz bailararen webgunea “berreskuratzea” dute helburu. “Bidean dago, bere garaian saiakera bat egin zen baina ez zen lortu, ataskatu ginen; orain, asmoa da berriz gaiari heldu eta bertan, adibidez, orain egindako gida zintzilikatzea, biziago izango baita sarean”. Bukatzeko, Xabik aipatu digu bailarako logoa daramaten USB “pintxo” sorta bat salgai jarriko dela.

ARANTXA IZURDIAGA:

“Foru Berria ez da aldatu sektore foralista eta kontserbadoreak eragindako presioagatik”

Nafarroako Foru berriak berri bat behar zuen, aski zaharkitua baitzegoen Nafarroako Gobernu berriaren ustetan. 1978an Espainiako Konstituzioa egin eta gero, testu hori ez da kasik ukitu ere egin, eta bertan azaltzen den gehiena konstituzioaren aurrekoa da. Beraz, testua berritzea izan zen Gobernu berriaren apustu bat.



Testua berritzeko, Arantxa Izurdiaga, Anotzi-barko gure bizilaguna aukeratu zuten. EH Bilduko parlamentari, legegintzan aditua, berarengan utzi zuten ardura, eta horretan dihardu buru-belarri. Baina ba al dakigu benetan zer dakarren Foru Berriak? Eta honi ekarriko zaizkion aldaketak? Arantxarekin hitz egin dugu xehetasun horiek guztiak azaltzeko.

Zer da Foru Berria?

Nafarron kode zibila da, pertsonen arteko harremanak arautzen dituen legea. Egunerokotasuneko afera zinez garrantzitsuak barnebiltzen ditu, besteak beste familia-harremanak (erregimen ekonomikoa, ezkontza banaketak, filiazioa...), donazioak, ondorengotza (herentziak eta testamentuak), murruntza, bermeak, salerosketak, preskripzio epeak, eta abar.

Zu ari zara testuaren aldaketak prestatzen, nola bizi duzu?

Akordioa sinatutako lau indar politikook Foru Berria birpasatu eta berritzeko konpromezua hartu genuen. Jakitun gara proiektu handia dela, baina ardura eta bereziki ilusio handiarekin bizi dugu. Herritarrentzat arautegi erabilgarri bat lortzeko ilusioa dugu, egunerokotasuneko arazoak konponduko dituen. Nafarroan, gure kode zibilean legeak egiteko konpetentzia erabatekoa dugu, baina ez dugu orain arte gauzatu, eta konpetentzia eta ohi-tura legegile gutxiago duten autonomi erkidegoetan urteak dira haien foru eta kode zibilak berri zitutela.

Oso aldaketa gutxi izan ditu orain arte, handiak izango dira hemendik aurrerako aldaketak?

Frankismo garaiko Foru Berria daukagu Nafarroan, eta noski, erabat zaharkituta dago, erreforma gehien behar dituen liburua familia-harremanak arautzen dituen baita. Familia eskubidea, esate-

rako, “etxea” den instituzioan oinarritzen da, eta horren inguruan oinarritzen dira familia-harreman horiek (besteak beste emakumea konfiantza eza batekin erabiltzen du, eta ez du ondorengotzan sartzen). Evidentea da 1975etik nafar gizartea aldatu egin dela, eta bereziki familiaren arloan.

Familia-eredu berriak azaleratu dira (bikote iraunkorrak, izatezko bikoteak, birsortutako familiak, sexu bereko bikoteak...), eta hauek ez dira Foru Berrian azaltzen. Familia-haustura ere ez da azaltzen (banaketaren ondorioak: elikadura pentsioa, seme-alaben zaintza, bisita eskubidea...), alarguna izatea da Foru Berrian azaltzen den familia-haustura bakarra (eta gainera, oso xeheki arautua dago, emakumeak etxearen jabetza har ez dezana). Terminologia ere erabat zaharkituta dago, eta haurren aurkako “neurri zuzentzaileen” inguruan hitz egiten du, haurren babes lege eta eskubideak urratzen dituztenak.

Zeintzuk dira aldaketa horiek?

Azaldutako guztia aldatu eta gaurko gizartean oinarritu beharko da: familia-harreman berriak, familia-hausturen ondorioak, ondorengotza sistema berri, artekaritza zerbitzua gehitu... Askatasun zibilean garrantzia jarri nahi dugu, Nafar Foruaren nortasunetako bat baita; elkartasuna bezalako printzipio berriak txertatu...

Aldaketak aprobatu ahalko dituzuela uste duzu? Erresistentzia izanen dute aurrean?

Jakitun gara batzuk ez direla guztiz ados izanen, izan ere, orain arte, hainbeste urtetan aldatu ez bada borondate ezagatik izan da alde batetik, eta sektore foralista eta tradizionalistak eragindako presioagatik bestetik (abortua kontraforua dela ere esan dute batzuek). Gai dira gure eskubidea hiltzen uzteko, Nafarroa gizarte landatarra, kontserbatzailea eta tradizionalista ez dela onartzea baino.

Baina zailtasun hauek gailentzeko lan egingo dugu, uste baitugu gure gizarteak arautegi argi, erabilgarri eta bidezkoa behar duela, XXI. Mendeko gure gizartearen beharrei erantzungo diona. Gizarte moderno bat, bereziki hiritarra, non arazo eta beharrak bestelakoak diren.

“Jendearen behar eta eskariei erantzuteko asmoa dugu”

Gentzane Ripodas eta Mirari Leitza ziaurritzarrak, Onddalan - Larraintzarko bentako langile berriak.



Zergatik hartu zenuten ostatua?

Biak egoera berdintsuan geunden, ume txikiekin, langabezian... eta bizitza pertsonala eta lana uztartzeko aukera ona zen, etxetik gertu gainera. Beraz, esleipenean atera zenean hartzea pentsatu genuen.

Eta zer asmo duzue ostatuarekin?

Jubilatuekin lan txukuna egiteko asmoa dugu, ostialero etortzen baitira hona. Afari-merenduak emateko asmoa ere badugu; pilota, futbol, eta bestelako kirol jarduerak daudenean ostatua irekita izatea... Eta egunerokotasunean, hemen dauden eskolaz kanpoko jarduerak dauden bitartean familientzat irekita izatea, urtebetetzeak eta bestelakoak ospatzea, txikiendako meriendak eta bokata... Ume txikiekin sukalde tailerrak eta halakoak egitea ere buruan daukagu.

Eta bazkariak eta horrelakoak?

Egunero ez dugu menurik eskainiko, baina eskariaren araberako bazkari eta afariak emanen ditugu. Gosari, bazkari eta afariak enkarguz emanen ditugu.

Zer ordutegi duzue?

Goizeko 9:00etan irekitzen dugu, gero eguerdian

itxi, 13:00etan, eta arratsaldeko 15:30etik 21:00etara irekita izanen dugu.

Luzera begirako apustu bat da edo urte batzuetarako?

Esleipenak 4 urte ematen ditu, eta urtero errebisatuko dugu bi aldeek.

Biok zarete euskaldunak, eskatu egiten zuten?

Bai, komunikatzeko adinako euskara maila eskatzen zen esleipenean, eta biok gara euskaldunak.

Ziaurritzarrak izanda zein harrera mota izan duzue?

Oso ona! Nahiz eta ultzamarrak ez izan ezagunak gara hemen. Odietatik asko etortzen gara hona eskolara, kirol jardueretara... eta bailara txikiak gara eta elkar ezagutzen dugu. Ez dut uste inork etortzeari utzi dionik guk hartu dugulako.

Eta bezeroak, ultzamarrak, kanpokoak... nongoak dira?

Ba, gehienak hemengoak, egia esan denbora gutxi daramagu lanean, baina inguruko jendea da hurbiltzen dena, hona zerbait egitera datozenak asko: gurasoak, irakasleak...

Lasterketa Xtrem baten kronikak

Irailaren 16an izan zen Nafarroa Xtrem mendi lasterketa. Bigarren ekitaldia zen aurtengoa, eta hirugarrena iragarri dute jada; ez da berriz ere irailean izanen, apirila amaieran izanen da, oreinen marrualdia (ugaltzeko sasoia) errespetatzeko asmoz.



Antolakuntzan bi bizilagun ditugu sartuak, Au-zako Asier Uriarte eta Aritzuko Aitor Iraizotz. Azken hau, gainera, ez zen antolatzearekin soilik kontent geratu, korritu ere egin nahi zuen, eta hala egin zuen. Eta ez zen joan paseo bat ematera, podiumetik oso gertu geratu baitzen, lasterketaren lehen erdia baino gehiago hirugarren postuan aritu ostean, atzetik zetorren Xabier Zarrantzen aurka amore eman behar izan zuen eta laugarren izan zen Zubiriko helmugan. Bere kronika daukagu ondorengo lerroetan.

Beste aritzuar batek ere hartu zuen parte lasterketan, Iñaki Mariñelarena. Bigarren aldia zen bertako, baina ezin izan zen Zubiriko helmugara iritsi aurtengo lasterketan, eta Aritzutik pasatakoan etxera sartu zen zuzenean, eta hor amaitu zen berea. Kilometro asko egin eta gero izan zen hori, ezin baitugu ahaztu 67 km-ko lasterketa batez ari garela. Gorka Osinaga ultzamarra ere izan genuen lasterketa honetan.

Lasterketa laburra ere izan zen, 32 km-koa, eta horretan ere ordezkaritza bikaina izan genuen: Saioa eta Patxi Muñoz ziaurritzarrak eta Ainara Urriza erasoarra. Oker ez bagaude, hauek izan ziren eskualdeko kirolari guztiak. Hona hemen Aitor Iraizotz eta Iñaki Mariñelarenaren kronikak.

AITOR IRAIZOTZ: “Bi urte pasa dira lasterketa sortu genuenetik, urte osoan eta bereziki azkeneko asteetan egindako lana itzela izan da. Iaz soilik antolakuntzan murgildu nintzen, dena berria baitzen, eta bi lasterketen zifrak (500 lasterkari, 180 laguntzaile, 67km+32km) nigan sortu zuten benetako errespetua eta ardura.

Ikasketa handia izan zen hura eta aurtengo lasterketa baino egun batzuk lehenago, erronka berezia egin nion nire buruari: antolatzeaz gain, bertan parte hartzearena. Lasterketa barrutik bizi eta ezagutu nahi nuen. Antolakuntza kideei proposatu nien eta animatu egin zidaten parte har nezan.

Prestaketetan lan handia egin genuen aurreko egunetan, nekatuta eta oso urdurik iritsi nintzen irteerara, inoiz baina urduriago. Gauza bakarra nuen buruan: kezkarik gabe korrikan hastea eta antolakuntzaz ahaztea.

Lehenengo 45km-ak oso ongi aurkitu nuen nire burua, Aritzutik Irigira izan nituen gorabehera batzuk, askotan ibiltzen naizen bideetan ez nintzen fina ibili eta gogorra egin zitzaidan Artzeki horren poliki igotzea, entrenamenduekin konparatuz, noski; baina, ordurako eginda neraman 50km-ak hanketan zama sortzen zuten. Tarte horretan piska bat alden du zitzaidan lasterketa burua, baina azken 10km-ak (Iragitik Aurrera) nahiko ongi egin nituen berriro, berpiztu egin nintzen eta Zubirin 7:52-ko marka egin nuen.

Pozik, oso pozi, 8 orduetatik jaiste nuen-eta helburu.

Lasterketa hauetan gertatzen den moduan, momentu gogorak eta momentu goxoak bizi izan ditut, baina batez ere lagun eta familiar askok antolakuntzan laguntzen eta lasterkariei hor animatzen ikustea, hunkigarria izan da niretako.

IÑAKI MARIÑELARENA: “Zorionez, aurtengo eguraldi hobea egin zuen, eta paisaia zoragarriez disfrutatzeko aukera izan genuen. Nire helburua lasterketa bukatzea zen baina, ezinezkoa zela ikusirik, Aritzutik pasatzean etxean gelditzea erabaki nuen.

ARTISTA ETA EKINTZAILEA:

SERGIO SALINAS

“Landa eremuko jendeari eginiko omenaldia da antzerki hau”

Saltsa guztietako perrexila, Sergio Salinas artista eta ekintzailea pertsona berezia eta hunkigarria dugu oso. Eszenatokietan, kalean eta manifestazioetan ikusi ahal izan dugu azkeneko urteetan. Oso ezaguna da Iruñerriko gizarte mugimenduetan, antzerkiaren esparruan eta beste. Txoriburu antzerkia aurkeztu zuen Lantzen iraileko ostiral kultural batean.

Nola sortu zen antzerki hau?

Beharra nuelako. Antzerkian istorio bat kontatu behar duzu, azkenean zeure istorioa dena. Nire familiaren istorioa nirearekin nahastuta kontatzen dut: gure gurasoei betidanik entzun diedan istorioak, garai horretan Bartzelona eta Madrilen bizitzen nintzela izan nituen esperientziekin nahastu nituen. Garai horietan hiri handian bizitza “bilatzen” ari nintzen: metroan eta kalean artista gisa lanean. Bere garaian, gure aita artzaina zen, eta kaleko artistaren bakardadea eta artzainarena alde-ratu nituen ikuskizuna sortzerako orduan. Bide horretan, landa eremuko jendeari omenaldia da antzerki hau.

Txoriburu, herritik ihesi hiri handira bizitzera doa...

Nafarroan 70. hamarkadan eman zen fenomeno migratzailearen seme-alabak gara gu.

Herri txikietan jaio eta hirian bizitzen bukatu. Bertan bizi izan zen gatazka aitak esaten zuen esaldiarekin laburtuko dut: “Iruñearrak maltzur samarrak izan dira beti”. Nafarroa 50. hamarkadan du hasiera antzerkiak: errosarioa, goizetik gauera lanean, gerraostea...

Ikuskizunean abesten duzu, soinu efektuak egin, gorputzaren mugimenduak, rap abestiak ere...

Egia esan nire arma gehienak erabiltzen ditut, karkarkar... Edo xumeago esanda, plazer gehien sentitarazten didaten baliabideak erabiltzen ditut. Eszenatokira makil bat eskuan ateratzen naiz eta ez dut beste “atzezorik” erabiltzen, nire baitan ditudan baliabideak besterik ez ditut erabiltzen irudiak, atmosferak eta soinuak sortzeko.

Urteak daramatzazu ikuskizun honekin eta hamaika aldiz aurkeztu duzu jendartean. Antzerkiaren munduan beharrezkoa da halako proiektu pertsonal “txikiak” aurrera atera ahal izateko?

Bai, arte eszenikoen gaur egungo egoera prekariora ikusita, beharrezkoa da, bai. Ikuskizun handiek aurrekontu handia dute, erakundeek kulturaren sartzen duten dirua behera joan da nabarmen... Aukera erre-arena da halako bakarriketa bat sortzea eta funtzionatzen badu, aurrera. Badira beste mota bateko esperientziak: konpainia batekin, urtebeteko lana... gero askotan ez du aurrerabiderik. Laburbilduz, kultura ez da laguntzen... Tira, hezkuntza eta osasuna laguntzen ez diren bezala... Zazpi bat urte daramat ikuskizun honekin, eta oso ongi funtzionatzen jarraitzen du.

Urtebetetzeak



AMAIUR




UNAI, TASIO, NAGORE eta AMAIA



IERA



MAIRU



PAU



HEGOI

Okil gibelnabarra **Ultzaman**

Okil guztiek dute lotura zurarekin. Uste daitekeenaren kontra, ordea, okilek ez dute zura jaten; zura zulatzen dute bere barnean dauden intsektuak aurkitzeko, intsektuez elikatzen diren hegaztiak baitira; horrela, basoa garbitzeko egitekoa ere betetzen dute. Okilak zuhaitzetan habiak eraikitzen trebeak dira oso, eta gero beste ugaztun batzuek erabiliko dituzte habi horiek, hala nola, muxarrek, urtxintzek, edo, beste hegazti batzuek, garrapoek, urubiek...

beriar penintsulan 7 espezie okil ditugu, horietako batzuk oso ugariak dira eta leku desberdinetan aurkitzen ahal ditugu; beste batzuk, berriz, oso espezialistak dira eta soilik baso naturaletan topatzen ahal dira.

Horietako bat okil gibelnabarra da, Pirinioetako pagadietan bizi den hegaztia. Oso urria den espeziea da, nekez iristen baita 100 bikote izatera Pirinioetako hego isurialdean: bat Huescan eta gainontzeko guztiak Nafarroan.

Aragoi eta Erronkari arteko mugan aurkitzen ahal dugu, Alduden eta Iratiko pagadi zabaletan.

90 eta 2000ko hamarkadetan Nafarroako Ingurumeneko Departamentuak behaketak egin ditu Aldudeko mendebalen, eta urtez urte egiaztatu du Ultzama eta Basaburua eta Larraungo pagadietan ere azaltzen dela.

Okil gibelnabarra agertzeko ezinbestekoa da, batez ere, hilda dagoen egurra egotea. Zuhaitz kaltetuek eta zati hilak dituztenek intsektuak ugaltzeko espazioak sortzen dituzte; intsektu horiek okil gibelnabarraren eta beste animalia batzuen dietaren zati garrantzitsuak dira.

Egun hilak eta ustelduak bere garaian zuhaitza osatu zuten mantengaiak lurrera itzularazten dute, eta oso lur aberatsa sortzen dute. Egur hila basotik kentzen denez, ondare urria izatera ailegatzen ari da, eta baso asko zikloaren zati natural hori galtzen ari dira. Berez, soilik basotik ateratzeko zailtasun handiak dauden lekuetan agertzen da egur hila, amildegia aldapatsuak eta pistetatik urrun dauden eremuetan. Egurraren usteltzeak hezetasuna behar duten espezieak agertzeko aukera ematen du, adibidez, hilik dagoen egurrean bizi eta elikatzen diren anfibioak. Ondoren, ondoek eta likenek kolonizatzen dute egur hori, eta, horrela, basoko aberastasun naturala mantentzen dute.

Okil gibelnabarraren presentzia oso lotuta dago basoko kudeaketarekin; izan ere, Nafarroako baso ustiategi guztietan Oihanak Kudeatzeko Atalak planifikatzen ditu egin beharreko lanak eta, kasu honetan, jarduketa protokolo bat aplikatzen du non produkzioaren eta kontserbazioaren helburuak bate-



ratzen diren.

Zehatz-mehatz, lanak planifikatzen dira kontuan hartuz ugaltze sasoiaren eragozpenak saihestu behar direla, leku batzuetan zuhaitzen mozketaren intentsitatea egokitzen da eta, gainera, bertan uzten da ahal den egur ustel gehiena.

Neurri hauek ez dute gastu erantsirik ekartzen; hala ere, plangintza zehatza eta planteatzen den mozketaren bakoitzarendako azterlan bana egin behar da, Departamentuko teknikariek eta basozainek egiten dutena.

Ultzaman okil gibelnabarra egotea ongi zainduta dauden basoen adierazlea da, eta, adibidez, Iratiko basoekin alderatzen ahal da.

Naturako turismoak landa etxeetan hartzen ahal du ostatu jakinik baso hauetan ibiltzeak beste erakar-garri bat gehiago izaten ahal dela, berez eskualde honek dituen gain.



2017KO ABUZTUKOA. GURE ALDERDIAN, ABUZTUAN IZAN ZIREN JAIOTZAK, EZKONTZAK ETA HERIOTZAK:

EZKONTZAK

ANUE

ETULAIN

Jon Iruretagoiena Arretxea eta Diana Bruño Artazkutz, biak Etulaingoak, 2017ko abuztuaren 19an ezkondu ziren. Etulainen biziko dira.



Oinatz
gurasoekin

Mila zorion ezkonberriei.

HERIOTZAK

IMOTZ

OSKOTZ

Bernarda Aldaregia Azpirotz, abuztuaren 30ean, *Maritoneko* Bordako etxeakoandrea.

ULTZAMA

AUZA

Josefa Armendaritz Oiartzun, abuztuaren 9an, Sebastianen etxeakoa.

ELTZABURU


Peio Etxeberria Etxenike, abuztuaren 17an, *Errotako* nagusia.



Jon eta Diana

Gure oroimenean izanen zarete.

OHARRA.-Aurreko zenbakian oker bat izan genuen Udabeko Oinatz Bildarratz Gurbindo jaio berriaren datuak ematerakoan, aitaren izena gaizki jarri genuen, Arturo eta Itziarren semea baita.



Bernarda



Peio



Josefa

NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz
 Tailer mugikorra
 Pneumatikoen aldaketa
 Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A
Aizarotz (Baasaburua)

  info@neumaticosbetelu.es
646 47 41 66

-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
 pneumatikoak konpontzera
 -Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
 -Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
 ELEKTRIZITATEA

 **629 31 53 32 - 722 766 835**

 **Lizaso**

 **karikolaregoitz@gmail.com**

DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA
TEL.: 678 623866
argapin@hotmail.com



ZIAURRITZ

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

